





**2020KO ARTE PLASTIKO ETA
IKUSIZKOETARAKO DIRU-LAGUNTZEN
PROGRAMAREN OINARRIAK**

II
Huarte



A. HELBURUA

B. XEDEA

NORENTZAT

Nafarroako Gobernuak arte plastikoetarako 2016ko deialdian emandako diru-laguntzen onuradunek ezin izanen dute laquntzarik jaso ekoizpen modalitatean.

NOIZ

Proiektuak 2020. urtean egin beharko dira (urtarrilaren 1etik azaroaren 30ra).

MODALITATEAK

Bi modalitate dira:

Ekoizpenerako diru-laguntzak. Proiektuak egitea sorkuntza-ekoizpen plastiko eta ikusizkoaren arloan: artelanak eta ikerketa ekoiztea.

Argitalpenerako diru-laguntzak. argitalpenak euskarri ezberdinetan egitea, arte garaikideko artistak eta formatu editorial bat behar duten arte-proiektuak hedatze eta sustatze aldera.

Proiektu bakar bat onartuko da eskatzaile bakoitzeko, modalitate bakoitzean. Eskatzaile berberak ezin izanen du modalitate bakoitzeko laguntza jaso, urte berean.

Modalitate bakoitzera bideratu diren diruak modalitate bakoitzean baloratzen diren eskaeren artean banatuko dira, ezarritako prozedurarekin eta irizpideekin bat. Baina, modalitate batera bideratutako diruak agortzen ez badira, eskaerarik aurkeztu ez delako, edo betebeharrak bete ez direlako, edo balorazio batzordearen iritziz, eskaerek ez dutelako behar bezalako kalitaterik edo bideragarritasunik, diruak berriz eskaintzen ahalko dira eta beste modalitateari esleitutako dirutzari erantsi.

C. BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUK JASOTZEA ETA HAIEKIKO BATERAGARRITASUNA

Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren diru-laguntzarekin batera, helburu bera duten beste

diru-laguntza, beka edo laguntza batzuk jaso daitezke, entitate publikoek, pribatuek edo partikularrek emandakoak. Nolanahi ere, haien guztien zenbatekoa ezin da inola ere izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

D. ARGITARATZEA

Deialdiaren oinarriak Uharte Zentroko webgunean plazaratuko dira

<https://www.centrohuarte.es/eu/>

E. OINARRIAK ONARTZEA

Eskaeren aurkezpenak berarekin dakar deialdi honen oinarrietan ezarritako baldintzak espresuki eta formalki onartzea.

A. ZENBATEKOA

Laguntza jasotzen ahal duen azken proiektuari ezin bazaio diru-laguntzarik handiena eman, behar adina dirurik ez dagoelako, diru-laguntza soilik emanen zaio, baldin eta ematen ahal zaion zenbatekoak proiektuaren bideragarritasuna ziurtatzen badu (Ebaluazio Batzordearen iritziz), eta baldin eta onuradunak onartzen badu eskaintzen zaion diru-kopurura doitzea bere proiektua. Hori dela-eta, ez bada esleitzen modalitate honetarako dagoen kopuru osoa, soberan dagoen dirua argitalpeneko modalitatara bideratutako diruari eransten ahalko zaio.

B. FINANTZATZEN AHAL DIREN GASTUAK

1. Proiektua ekoizteko behar diren materialak eta tresnak erostea.
2. Onuradunaren joan-etorriak, ostatua eta garraioa, proiektuarekin zuzeneko lotura dutenak. Behar-beharrezko kostuak izanen dira proiektua gauzatzeko, eta hortaz, proiektua gauzatzeko epealdian egin beharko dira, txostenean adierazi eta aurrekontuan zehaztuko dira. Ez dira aintzat hartuko ohiko joan-etorrietatik edo joan-etorri arruntetatik datozen gastuak, ezta dieta-gastuak ere.
3. Proiektuko ekintzak egiteko behar diren zerbitzuak, kanpoaldeko bitartekoak, ekipoak, bitarteko materialak eta beste kontratatzea.
4. Egitura-kostuak, hala nola estudio edo lokal bat alokatzea, betiere egokia bada eta proiektua garatzeko justifikatua badago. Ez dira aintzat hartuko artistaren ohiko estudioa mantentzeko gastuak.
5. Artisten ordainsariak, sorkuntzarako egindako lanaren ordainez, ez du gainditu beharko jasotako laquntzaren % 25a.

- Ondasun higigarrien eta azpiegituren erosketarekin, erabilerarekin eta finantzaketarekin lotuta dauden guztiak, salbu eta aurreko puntuari ekipamenduko gastu inbentariagarrietarako ezarritakoa, betiere diru-laguntzaren xede den proiektua praktikan jartze aldera.

- Proiektua garatzeko guztiz beharrezkoak ez diren gastuak, edo zenbatekoa modu fidagarrian zehaztu gabe dutenak.
- Erakusketak eta katalogoak ekoizteko gastuak.

C. ESKAERAK

Baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak (epeak ez betetzeagatik, behar adina daturik edo agiririk ez emateagatik) ez dira onartuko.

AURKEZPEN EPEA

Eskaerak eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea 2020ko martxoaren 26an itxiko da 23:59etan.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerarekin dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Izena emateko fitxa behar bezala bete.
- NANaren fotokopia edo Nafarroan 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen erroldatua egotearen ziurtagiria.
- Aurrekontu xehatua eta zehatza, emandako eredua jarraituz.
- Proiektuaren azalpen txostena, PDF bakarrean: laburpena, planteamendu teorikoa, gauzapena, irudiak eta/edo zirriborroak, lanerako plana.
- Curriculum, PDF bakarrean, deialdiaren xede den esparruan egindako ibilbide akademiko eta profesionalarekin (taldea izatekotan, kide guztien curriculum aurkeztuko da).
- Aldez aurretik egindako lanen gainerako txostena.

AURKEZTEKO MODUA

Dokumentazio guztia formatu digitalean aurkeztuko da, deskargatu daitezkeen ereduak erabiliz, beti ere formatu berean badaude.

Dokumentazioaren gehienezko pisua 15 Mb-ekoa izango da.

Bideoak, web helbide bidez aurkeztu ahal izango dira, dagokion dokumentuan.

Artxiboak honela izendatuta agertu beharko dute: IZENA_ABIZENAK_EKOIZPEN_LAGUNTZAK_aurrekontua.PDF (edo dena delakoa, izen-ematea, memoria, NANA) artxiboa ayudas@centrohuarte.es helbidera bidali beharko da.

Bide beretik, artxiboa jaso izanaren ziurtagiria igorriko da.

D. AUKERAKETA

EBALUAZIO BATZORDEA

Hona ebaluazio batzordeko kideak:

- Celia Martín Larumbe, Museoen saileko arduraduna Kultura Zuzendaritza nagusiaren ordezkaritzan.
- Pablo Berastegui, ekoizle kulturala.
- Leyre Goikoetxea, komisario independentea.
- Xabier Idoate, artista plastikoa eta Uharte Zentroko patronatuko kidea.

- Oskia Ugarte, Uharteko Arte Garaikideko Zentroko zuzendaria idazkaria izanen da; hizpidea du baina botorik ez.

BALORAZIO-PROZEDURA

1. Uharte Zentroak eskaeraren lehen berrikuspen teknikoa egingen du, guztiek deialdiaren oinarriak betetzen dituztela ziurtatzeko. Ez dira onartuko baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak.
2. Ebaluazio Batzordeko kideek onartutako proiektuak jaso eta baloratuko dituzte bakoitzak bere aldetik eta 10 hautagaiez osaturiko zerrenda bat proposatuko du bakoitzak.
3. Ebaluazio Batzordea aurrez hautatutako hautagaien puntuazioak bateratzeko bilduko da. Hautagaiek 5 minutuko iraupena izango dute ahozko aurkezpena egin ahal izateko. Ondoren, Batzordeak azken puntuazio-proposamena aurkeztuko du.

Onartutako aurrekontuak ezarririk eta proiektu guztien bideragarritasuna ziurtatuta, Ebaluazio Batzordeak diru-laguntzak banatuko ditu balorazio altuena izan duten proiektuen artean. Erabakia loteslea izango da.

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Irizpide hauen arabera baloratuko dira proiektuak:

- 1. Proiektuaren kalitate artistikoa (70 puntu).**

Proiektuaren garrantzia, interesa eta ideia kontzeptualaren eta hura garatzeko proposamenaren arteko koherentzia (45 puntu).

Arte-sorkuntzaren esparrua berritzeko bultzada izatea (15 puntu).

Proiektuaren aurkezpena eta formulazioa (10 puntu).

- 2. Artistak deialdiaren xede den esparruan egindako ibilbidea (20 puntu).**

- 3. Proiektuaren bideragarritasuna eta aurrekontuaren egokitasuna (10 puntu).**

Aurreko irizpide horiek aplikatuta, 100 puntu gehienez emanen zaizkio proiektu bakoitzari, eta ez dira aintzat hartuko gutxienez ere 50 puntura iristen ez diren proiektuak. “Proiektuaren kalitate artistikoa” ataleko puntuazioaren erdia lortzen ez duten proiektuak ez dira kontuan hartuko.

E. KOMUNIKAZIOA

Onuradunen aukeraketa interesdunei jakinaraziko zaie eta Uharte Zentroaren webgunean argitaratuko da: <https://www.centrohuarte.es/eu>

F. PROIEKTUEN JARRAIPENA EGITEA

Uharte Zentroak proiektuen eta artisten jarraipena egingen du. Jarraipena ezberdina izanen da, proposamenen arabera baina aholkularitza, laguntza teknikoa, kontaktuak edo beste edozein motatakoa, betiere, Uharte Zentroaren eskura bada.

EGONALDIA UHARTE ZENTROAN

Artista onuradunek Uharte Zentroaren instalazioak erabili ahal izango dituzte, eta lanerako leku bat izanen dute eskura urte osorako Zentroan, bertako baliabideak eta ekipamenduak erabiltzeko aukera ere izango dutelarik.

JUSTIFIKATZEKO MODUA

Onuradunak behartuta daude jasotako laguntzaren kontura egindako gastuak justifikatzera, bai eta laguntzaren helburuak bete direla egiaztatzerare, adostutako epeetan (ikus G. Ordainketa eta justifikazio-modua) eta honako agiri hauen bidez:~

- Egindako jardueraren txosten teknikoa, emaitzak, garapena eta ebaluazioa barne.

Txostenean, proiektuaren alderdi guztiak bete direla eta deialdian aurkeztutako proposamenean bildutakoarekin bat datorrela jaso beharko da.

- Egindako jardueren kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, gastuen zerrenda barne, onuradunei emanen zaien Excel ereduaren arabera. Faktura bakoitzaren enpresa, eguna, zenbatekoa eta zenbakia adierazi beharko dira.

- Onartutako proiektua gauzatzeko egin diren gastuen frogagiriak.

Gastuak fakturen bidez edo administrazio-eraginkortasuna duten bestelako frogagiriaren bidez justifikatuko dira. Fakturak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera jaulki beharko dira, eta Fakturazio Betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onesten duen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuari jarraikiz eginak. Ez dira onartuko baldintza horiek betetzen ez dituzten fakturak.

- Diruz lagundutako proiektuaren gastu guztia justifikatu beharko da. Egindako gastutzat hartuko da ordaindu izanaren ziurtagiria daukana.

50 eurotik gorako ordainketa guztiak bankuko transferentziaren edo txartelaren bidez egingen dira. Eskudiruz ordaindutako 50 € baino gutxiagoko ordainketek hornitzaileek luzatutako faktura beharko dute, “ordaindua” zigiluarekin.

Ordainagiriak ezarritako data baino lehen aurkezten ez badira, ez dira ordainduko justifikatu ez diren ordainketak. Era berean, aurreratuko diru laguntza ez bada justifikatzen, bueltatua izan beharko da.

Onartutako aurrekontuak ezarririk eta proiektu guztien bideragarritasuna ziurtatuta, Ebaluazio Batzordeak diru-laguntzak banatuko ditu balorazio altuena izan duten proiektuen artean. Erabakia loteslea izango da.

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Irizpide hauek erabiliz baloratuko dira proiektuak:

- 1. Argitalpenaren interesa eta koherentzia (65 puntu).**

Argitalpenaren garapena. Egitura, diseinua, koherentzia edukiaren eta proposatutako kolaborazioen artean (40 puntu).

Proiektuaren garrantzia, interes maila, eta lagungarriak izatea arte-sorkuntzaren esparrua eta eskatzailearen ibilbidea berritzeko (15 puntu).

Proiektuaren aurkezpena eta formulazioa (10 puntu).

- 2. Artistak deialdiaren xede den esparruan egindako ibilbidea (20 puntu).**

- 3. Banaketa-plana eta aurrekontuaren egokitasuna (10 puntu).**

- 4.** Euskarak proiektuan tokia izatea (5 puntu). Irizpide hau ez da aplikatuko, ezein hizkuntzarik aurreikusten ez duten proiektuen balorazioan; horietarako, atal honetan aurreikusitako portzentajea 1. atalaren 1.puntuaren portzentajeari erantsiko zaio.

Aurreko irizpide horiek aplikatuta, 100 puntu gehienez emanen zaizkio proiektu bakoitzari, eta ez dira aintzat hartuko gutxienez ere 50 puntura iristen ez diren proiektuak. “Argitalpenaren interesa eta koherentzia” ataleko puntuazioaren erdia lortzen ez duten proiektuak ere ez dira onartuko.

E. KOMUNIKAZIOA

Onuradunen aukeraketa interesdunei jakinaraziko zaie eta Uharte Zentroaren webgunean argitaratuko da: <https://www.centrohuarte.es/eu>

F. PROIEKTUEN JARRAIPENA EGITEA

Uharte Zentroak, ahal duen neurrian, proiektuen eta artisten jarraipena egingen du: jarraipena ezberdina izanen da, proposamenak zein diren, baina aholkularitza, laguntza teknikoa, kontaktuak edo beste edozein moldetakoak izaten ahalko da, betiere Uharte Zentroaren eskura badago.

G. ARGITALPENEN AURKEZPENA

2021ko lehen hiruhilekoan argitalpen guztiak batera aurkeztuko dira, Uharte Zentroaren programazioaren baitan. Artistekin ados jarri ondoren, Uharte Zentroa lankidetzan aritzen ahalko da argitalpena beste leku batzuetan aurkezteko.

H. ONURADUNEN BETEBEHARRAK


- Deialdi honen barrenean diruz laguntzen den proiekturako soilik erabiltzea laguntza.
- Arte Garaikideko Uharte Zentroan justifikatu beharko da diruz lagundutako proiektua gauzatu dela eta zer gastu egin den. Proiektua bukatutzat jotzeko, argitaratua egon behar da.
- Proiektua gauzatzea deialdian aurkeztutakoarekin bat. Hala ere, aldaketak egiten ahalko

Gastuak fakturen bidez edo administrazio-eraginkortasuna duten bestelako froga-agirien bidez justifikatuko dira. Fakturak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera jaulki beharko dira, eta Fakturazio Betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onesten duen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuari jarraikiz eginak. Ez dira onartuko baldintza horiek betetzen ez dituzten fakturak.

- Diruz lagundutako proiektuaren gastu guztia justifikatu beharko da. Egindako gastutzat hartuko da ordaindu izanaren ziurtagiria daukana.

50 eurotik gorako ordainketa guztiak bankuko transferentziaren edo txartelaren bidez egingen dira. Eskudiruz ordaindutako 50 € baino gutxiagoko ordainketek hornitzaileek luzatutako faktura beharko dute, “ordaindua” zigiluarekin.

Ordainagiriak ezarritako data baino lehen aurkezten ez badira, ez dira ordainduko justifikatu ez diren ordainketak. Era berean, aurreratuko diru laguntza ez bada justifikatzen, bueltatua izan beharko da.



|| \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ || \